

**AMAIERA GUZTIEN OSTEAN DATORRELAKO
HASIERA ORO**

Alaine Agirre Garmendia, 17 urte

Bermeo

Goizero-goizero ogia erosten zuen okindegiko erakus-leihora begiratu zuen Naiak, kasik deskuidoan, ohituraren inertziaz. Eta bere aurpegiaren isla iheskorra ikusi bertan, lotsaren-lotsez ia gardenki islatua; ogi eta opil freskoen usain sarkorra gartzelatzen zuen kristal hartan. Kaleko hatsaren lekuko zen leihoan bere aurpegia ikusi bezain laster, ordea, soa aldendu zuen, rimelez eta karminez mozorrotutako isla harengandik urruti.

Aurrera jarraitu zuen, errealitateak kristal hartan erakutsi ziona ahaztu nahian; sengunduro bere hankek galtzen zuten ausardiaren errainu denei eutsi nahian. Alferrikakoak ahalegin guztiak, alabaina. Takoi altu haien gainean, izan ere, hankek dardara egiten zioten, bertigoa balute bezala. Eta dardaren astinaldi bakoitzarekin batera, segurtasun ezezagunaren izpi oro itotzearen erantzule zen ekaitz bortitz bat jaiotzen joan zen, Naiaren nortasunaren pareta hauskorra mila adreilutan zatituz.

Nor engainatu gura zuen, *make-up* guzti haren azpian, takoiez eta eskoteaz haratago ezkututzen zen ziurtasun gabezia gorde nahian? Zinez, rimelez jantzitako begi haiek berdinak izaten jarraitzen zuten, beti bezain miserable, beti bezain txiki. Urteetan, klinex-etan isuritako malkoek higatu egin balituzte legez. Behinola, Naiaren oroimenaren kajoiko izkina txiki bat okupatzen zuen garai batean, edertasunaren ezaugarri izan ohi zen begien urdintasuna, malkoek enbata gris batean bilakatu balute bezala. Azkenean, grisaren iluntasuna ezerez gardenean bihurtu zen arte. Gardentasunaren ezerezean.

Une hartan, pertsona txikiz inguratuta, hiri handi hartako eztakit-zenbatgarren abenidan, txiki sentitu zen Naia. Polisaren kale berberetik igarotzen ziren pertsona txiki oro baino are txikiago. Lurreko baldosa zikinetako inurriak galant ikustearaino uzkuritu zen Naia, txikertu; okindegikoan ordez, bere irudimeneko eskaparatean ikusi zuen islak era ezin krudelenean erakutsi zion edertasun hutsalean galtzean.

Bere burua gorrotatu zuen (behin ere) benetako Naia, Naia denetatik zintzoena (eta gogaikarriena) zena estaltzeko egindako ahalegin antzuengatik. Bere burua gorrotatu zuen (areago), kamuflajezko mozorro haren atzean bere azalaren zurbiltasuna, ezpainen lotsa, begien mututasuna aditzean. Eskote haren atzean, ehuneko 65a ezkutuan, ehuneko 35a agerian zeuden bularren txikitasunagatik detestatu zuen bere burua, tirante finez jan-

tzitako sorbalden tolesduran ezkutatutako ahalkeagatik.

Eta zertarako dena? Makilajea segurtasun-gabeziarentzat inpermeablea ez zela jakiteko?

Ez zen. Ez zen izan nahi zuena. Eta ez zena izateko egindako ahaleginek lotsarazten zuten. Ez zenak eta izan ezin zenak atsekabetzen.

Hanken dardara bortizki hazi zela ikustean, alde besterik ez zuen egin nahi: zikin sentiarazten zion gezurrezko aurpegi hura garbitzeko, izaren zabal-tasun itogarrian babes sentitzeko. Berak sortutako bakardadearen olatuak ito zezaten desiratu zuen. Alde egin nahi zuen soilik, ihes, korrika, hegaz, bere existentziaren mugatzaile zen ekaitzaren bihotzera, jendetzaren epeltasun krudeletik at.

Desagertu.

Joseba bere zain egongo zen, alabaina. Eta, ez zuen nahi, inondik inora ere hura mintzea. Mezu bat bidaliko zion bada, azken momentuko zeregin garrantzitsu baten erruz ezin izango zuela aste bete arinagotik baieztatutako zitara joan. Edozer, baina ez nazala horrela ikusi, mesedez, pentsatu zuen Naiak. Ez nazala ikusi.

Etxera joan zitekeen. Ohean sartu. Bere negarra paperean irauli: kalera irten eta denda batetako erakus-leihora ziurtasunez begiratu, eta honen erantzunari irribarre egiten dion emakume baten pertsonaia asmatu. Bere pausoak aditzera emateko takoiak janzten dituen horietako bat. Beldurrik bako irribarredun eta izen xarmanta duen emakume bat. Nerea izan zitekeen, edo Estibaliz. Ile luzea

zeraman, beltza; ezpain gorriak, melokotoi bigun bat jan berri balu bezala. Zinera joatea atsegin zuen, zuri-beltzeko pelikuletako elkarrizketetan itotzeko, beltzen eta zurien harmonian galtzeraino. Eta Argentinako tangoak maite zituen, izugarri. Taupadek abiadura-mugak zeharkatzen zuteneko gau amaigabeak atsegin zituen, dantzan igarotako ordu luzeak, erlojuaren orratzek betirako gelditzea desiratzen zuteneko uneak, *stop, stop, STOP!!!* Eta txokolatzeko izozkiak, txokolate beltzeko izozki handiak, kukurutxoan behera urtzen direnetakoak, eta sudurra lotsarik gabe zikintzen dizuten horietakoak. Maialen zuen izena, Naiak hala nahi zuelako. Ez hain gaztea. Baina bizia. Belarri txikiak omen zituen, eta igandeak gorroto, partxisaren moduan.

Maialen zuen izena, bai, eta saltotxoez jaisten zituen eskailerak, eskailerak jaistearen gustuko zuelako, kukurutxoetan behera labaintzen diren txokolate beltzeko errekek bezainbeste, edo agian gehiago. Gehiago, gehiago, gehiago. Benetan laketa zuelako eskailerak jaistearen, tipi-tapa, egunero, tapa-tipi, saltotxo-zaltotxo. Tipi eta tipi eta tapa.

Hala ere, azkenaldi honetan igogailuz jaisten zen Maialen; edo hori idatzi zuen Naiak, gutxienez, bankuko papela bateko atzeko alde zurian, letrak zenbakien auzokide zirelarik, eta kalkulua hitzenak. Ohean zegoen Naia, pijama erraldoi batean hondoratua, dutxa beroa hartu berrian, izarak bere ezkutu zirelarik. *Kolakaua* mesilladenotxe-an.

Saiatu, bederen, saiatu zen hori guztia idazten, hori eta gehiago, bera izan ezin zitekeena zen norbaiten bila zegoelako. Berbak, hala ere, beraren barruko Naiarenak ziren, haren barneko ekaitzen lainoetan itzaltzen zen Naiak idatziak baitziren. Halatan, beraz, Naia bat idatzi zuen Naiak, benetako Naiarengandik apur bat desberdina zen Naia bat, bainilaren ordeztokolatea (beltz-beltza) gustaten zitzaion Naia bat. Maialen izena zuen Naia bat.

Gaua zen. Zaratarik txikienak ere durunda egiten zuen isiltasunaren pareten kontra. Eta errebotatu; gauaren iluntasun isilean disolbatzen zen arte. Kanpotik zetorren kilkerren hotsa, gautxori baten ulua, Naiaren arnasaren oihartzuna, izaren baltseo leuna. Hots ilaun oro, itsasoko olatuen dantza antzeratu nahian. Egunez hilik dirauten hotsak. Bizirik.

Igogailu baten soinua ere entzun zezakeen noizbehinka, urrunean, arnasari eutsiz gero.

Berbak boligrafo berdearen puntatik irten ziren, paperean labainduz, harro, orlegi, zenbakien eta kalkuluen zapaltzaile zirelakoaren jakinean:

Igogailuaren ateak zabaldu dira. Barrura sartu zara. Ez zara igogailuan dagoen bakarra. Alboan dago Bera; egunero legez. Bekainak igo ditu, agur txiki baten modura. Gogo handiegirik gabe, egia esaterako; konturik gabe depilatutako bekainak pisutsuegiak bailiran. Edo, beharbada, logureegi direlako, pentsatu duzu; logale handiegia daukatelako goizeko ordu txikietan agur terripleak egiten hasteko. Begiek ere akituta ematen dute,

insomnio gauetan hara eta hona bidaiatzen diharduten horietakoak. Gauaren edertasun isila harrapatzen ihardun balute modura; pintzelkada ilunez urtutako itsasoe-tatik edota hitz galduen zurrunbiloetatik, bideak egiten dituzten misteriozko begi horietakoak direla pentsatu duzu. Susmatu. Zalantzarik gabe, Watson maitea. Akaso pintore batenak, edo bestela poetarenak; baina seguru zaude bere begiak artistaren batenak direla. Osterantzean, ez lirateke hain ederrak izango: hain lotsagabeki eder. Haiek ezkutaturiko dirdira kadenean galduegiak, kondenatuegiak baitira arruntak izateke.

*Eta, zeure baimenik gabe, egin dizu ihes irudimenak, lainoetatik haratago, Berarekin batzen zaren uneetara. Musikaren eragin eropean, gaua amaitzeraino (eta harekin galtzeraino), dantzatzen diharduzuen iluntzeetara. Izaren samurtasunean eta musuen zuritasunean (edo aldrebes), urtzen eta funditzen eta berrero urtzen zareten goizetara. Kandelaren negar gartsua metal hotzean behe-
ra irristatzen den eran.*

Hain urrun, hain urrun, hain urrunnnnnn eroan zaitu zeure irudimenak, traidore halakoak, non ez dakizun bere ezpainetatik ilki eta zeure barrua dantzan jarri duen irria benetakoa ala irudimenezkoa ote den.

—Beherantza? —galdetu diozu, dardakadaren harian dardaraka dagoen ahots dardarti batez.

Baietz erantzun dizu, goizetako ahots karraskatu batekin: baietz, beherantza doala, edo agian gorantza, edo zerura, edo Mundakara. Edota baietz, maite zaituela, zuk maite duzun moduan, edo areago, urrunago, asago; baietz, gura zaituela, eta horregatik zuri itxaroten dagoela egunero-egunero, segundo batzuetarako bada ere elkarrekin egoteko, igogailuaren metro karratu parearen xumetasunean zure eskua nahigabetasunaren nahiaz lastantzeko, eta baietz, zirririk txikiena bada ere zeuretzat

dela, zeuretzat bakarrik. Baietz, bai, maite zaituela, goizean eguzkia itzartzen denetik hurrengo goizean ilargia oheratzen den arte.

Azken guzti hau zure irudimen ezin traidoreagoaren beste amarru bat dela pentsatuz, errieta egin diezu taupadei, argiaren abiadura bereganatzeagatik, eta irrealitatearen aliatu bihurtzeagatik. Zinez, baietz bakarrik erantzun dizu, baietz, beherantza doala eta listo. Eta kito. Besterik ez.

Zero-ren botoiari eman diozu, beraz. Ateak itxi egin dira. Igogailua jaisten hasi da.

Aurrera begira geratu zarete, ateei so eginez, hauek noiz irekiko esperoan. Baina inoiz irekitzen ez badira, zer? Hasieran, bi metro karratuko eta argi fluorezeszentez argitutako leku zarratu batean ataskatuta geratzearen pentsuak izutu egin bazaitu ere, ondoren, askorik inportako ez litzazukeela pentsatu duzu. Are gehiago (eta erago), segundo erdi baten laurden batez, ateak ez zabaltzea desiratu duzu. Inoiz. Eguneroko egunerokotasun erosora zaramatzen igogailua gelditzea desiratu duzu, bertan barruan geratzea, betierean irautea, hara eta hona bul-tzatzen zaituen haizearengandik urruti. Salbu.

Hosto arina zara, izan ere: haizearen xuxurla txikerrenak ere aise eroan zaitzake. Helmugarik bako hostoa, noraezean urtua, pentagramarik isilenetako esklabu.

Indartsu (ia krudelki) astintzen zuen haizeak hasiera batean. Ez zenuen gogoko, beldur baitzinen. Xuxurlatu zizun, geroenean, bakardadearen izaera hotza dela zu bezalako hostotxo ahul batentzat; ankerregia. Eta murmuratu hala izan behar zenuela, marroia, beti marroi; eta ez hola. Ez berde, ez hori. Marroi. Horretarako, baina, zuhaitzetik urrundu behar zenuen, atzean utzi haren mendua, zeure nortasuna. Sinestu egin zenuen. Bakartasunaren baratzean loratzeak beldurtzen zintuen

izan ere; haizearen zirimoletan hegaz ez egiteak izutzen. Utzi zenuen, bada, zeure errama, aldendu bizitza ematen zizun errotik. Eta orduan bai: orduan eroan zintuen haizeak, asagora.

Eraman zintuen honek parkera, eta erakutsi jendea, domeketako arropen jantzia, betiko pausoez, betiko bidean. Pausatu zinen baten sonbreruan, eta gero beste baten aterkian: urtu zinen haien azalean, zeurea ahantziz, haiena jantziz. Eta, egun batean, alde egin zutenean, erori zinen malenkoniaren itsasorik sakonenean, haren besoetan murgilduz; uhin, dantza, gezal orotan galduz.

Itotzeraino.

Gero eta hondoratuago, gero eta gatibatuago zinen haizearen korronteengan. Zara. Murmura arrotzen *pean* bizirauten diharduzu, zeure nortasunetik, arbolatik, urrun.

Horregatik, bada, ez zara izan kapaz eguneroko errutinara inertziaz zaramatzen igogailuko STOP botoia sakatzeko, eta bien bitartean, *pentailatxoko zenbaki gorri perfektuak* eskaileretan beherantz doaz, zortzi, zazpi, sei, behin existitu omen zen bihozkadaren bultzatzaile den ahairea iraungitzen joan delarik, bost, lau, apurka-apurka itzaltzen, hiru, bi, bat, oihartzun bilakatu den arte: zero.

Agur bat murmuratu eta alde egin du, ateak ireki bezain pronto. Zerbait esan nahi diozu, agur edo gero arte bat baino zeozer gehixeago: geldiarazi egin nahi duzu, besoetan hartu, bere pauso bakoitzean haizearekin endredatzen eta korapilatzen eta berriro endredatzen den suzko ilearen sugar oro zeure eskuekin ferekatu, bere ezpainak musuka lapurtu, zeuon taupaden erritmoaren tangoan galdu; hatsen eta hasperenen eta intzirien ziri-molan urtu, bizitzaren pentagrametako montañarusera eroango zaituen herioarengatik hil. Eta, batez ere, bere-

ziki; inoiz, sekula, ez askatzeko. Zeure egiteraino, eta zu bere.

Eta, zure mututasun isila atzean utziz, kalera irten da, bere eguneroko bizitzaren esparruetatik narrasean ibiliz.

Igogailuan irudikatu zuen Naiak Maialen; sabelean maremoto batekin, eta tximeletekin, eta txiribitekin. Kolore guztietako txiribitekin, gainera.

Udaberrian belardietan bistoso-bistoso agertzen diren horiek: belarrari hazkura ematen dioten berberak.

Igogailuan irudikatu zuen beraz Maialen, goize-ro legez, egunero-egunero, ohetik altxa eta hortzak garbitu orduko pentsatzen zuena esateko (aitortzeko) asmoz. Zortzigarrenetik zerorako bidean, berriz, galerna hasten zen, hasi eta hazi, eta tximeletei barrabaskeriak egitea okurritzen zitzaien: sabeletik hasi eta eztarriraino aureskuak egiten hasten ez ziren ba, okasiente halakoak! Eta ahoa irekitzeraino heltzen zen Maialen, laugarren edo hirugarren pisuan zihoazenean, baina mingaina (salatari halakoa) trabatu egiten zitzaion, korapilatu, nahaspilatu, mordoilotu, kateatu, zaparrastatu, eta Maialenek, azkenean, horrenbesteko korapiloa askatzea lortzen zuenean, pantailatxoan zero zenbakia agertzen zen, gorri, perfektu; inoiz baino errukigabeago. Baina Maialen konfundituta sentitzen zen hurrengo goizean, zeroa oraindik eta ankerrago bihurtzen baitzen, bere dirdira gorriaz trufa egiten ziolarik, demonio prakagorri halakoak. Eta hala pasa ziren egunak, edo hori pentsatu

eta idatzi zuen Naiak, bankuko orriaren atzealde zurian, eta hau amaitzean mesilladenotxean aurkitutako klinex batean, eta hau bukatzean supermerkatuko zerrendan. Eta pentsatu zuen istorio amai-gabe bat idatzi zuela oraingoan, erlojuaren orratzak greban jarri eta kieto geratu zirelako (stop-stop), eta supermerkatuko zerrenda bukatu ondoren komuneko paperaren roiloan idatzi behar izan zuelako. Eta orduan ere, paper guzti hura gastatu arren, denboraren jainkoek eskirol bihurtzeko erreparuak jarri zutenetik igaro ziren orduak iragan arren, Maialenek mutu jarraitzen zuen, bere taupada zoroek igogailuan auzokidearekin igotzen zen bakoitzean durunda eta durundi egiten bazuten ere.

Eta pentsatu zuen Naiak, Maialenek gutxi zeukala Maialenena, eta asko Naiarena. Hasiara batean gainezka egin zioten berba desleialez traizionatuta sentitzen zen Naia. Eskailerak saltotxoz-saltotxo jaisteak laket zuen Maialen hura lerroz-lerro, hitzez-hitz koloregabetzen joan bailitzan; goizean lanazko jertsera botatako perfumea gauerako joana dagoela ohartzen zarenan bezalaxe. Kukurutxoan behera labaindutako txokolate beltza gogoko duela ahantzi, eta egunetik-egunera, STOP botoia urrunago ikusten duenaren antzera. Goizero-goizero emakume berberarekin konpartitutako bi metro karratuek itotzen dutenaren gisara; ezezagun maitearen ondoan dagoela, kalenturaren hotzikaretan lurrundu eta baporea irten ez dakion, belarriak tapatzen dituen antzo. Bere ondoan duen horri

taupadak ostu eta hauen erritmoarekin akort tango baten galtzeko beldur denaren lez. Zinez, ahaztu egin zitzaion Maialeni taupadak, eta kalenturak, eta txokolatea, eta STOP botoia lapurtzearen zioa; jolasaren arauak. Amodioaren motibo bakarra, ilargia eta izarrak lekuko direneko gauak dantzan, eta soilik dantzan igarotzea dela; sunsitzeraino, hiltzeraino. Heriorik goxoenaren aurrean errenditzeko. Bere eta haren, haren eta bere zurrunbiloaren nahasmenean kiribilkatuz, zerumugak itsasoarekin legez, bien arteko erreakzio perfektuegi batean elkarrekin urtzeko: solutua nor den, disolbatzailea nor en ahantzirik.

Naiak pentsatzen zuena baino askozaz berdina goak ziren, dudarik gabe. Bata bestearen isla, beltzaren zurtasuna, zuriaren belztasuna. Horregatik idazten zuen Naiak, beharbada, bigarren pertsonan: lehenengo pertsona baten zintzotasun hurbilaren beldurrez, hirugarren baten axolagabetasunarengandik aiherga. Horren ondorioz, edo kausaz, beraz, kondenatu zuen Maialen eguneroko maitemina dosi gupidagabeak hartzera, bizitzaren alderik sutsuenari muzin egitera. Isiltasunera. Bihotzeko amildegia egunean apurtxo bat urratzen duen itxaropenean bizitzera zigortu zuen, errukirik gabe.

Borragomaren faltan, eta bere bizitzako lapikotan bota behar izan zuen pipermina Maialenen egunerokotasunarekin irabiatu nahian, tatxatu egin zuen Naiak azken esaldia. Irudikatu zuen bere irudimeneko pareta zurietan, azukre apur baten bila

zihoala Maialen. Imaginatu zuen auzokideari txirrina bi aldiz jo eta honek atea irekitzean, azukrearen ordez, musurik azukreztatuen ostutzen ziola. Irudikatu eta idatzi zuen Naiak (partitura baten pentagramen arteko hutsuneetan), egunero-egunero, igogailuan zortzigarren pisutik zerora jaisteko behar zituen hogeitamazazpi segundoak Maialenen alboan igarotzen zituen emakumeak, marrubizko musu batez erantzuten ziola. Izan ere, suzko iledun emakume hark, Maialeni maite zuela esaten ez bazion ere, bere ezpainak mutu geratzen baziren ere, mila eta bat (edo bi) poema idatzen zizkion gauero, zortzigarrenetik zerorako bide eternalean airetik hartutako hitzak lapurtu ostean; (... love is in the air ...). Beraz, zirriboratu zuen paperean Naiak (Vivaldiren lau Urtaroen udaberriaren magalean), ile gorridun emakume hark eskutik heltzen ziola Maialeni eta bere logelara gidatzen.

Eta ibai orlegietan gaindi, hitzen zirimolan, elkar maite zutela idatzi zuen Naiak:

Udaberriko arratsalde epel bat da, haizearen xuxurlak arboletako hostoak leunki dantzarazten dituen horietakoa. Guardasolak etxean triste gelditzen direneko arratsalde sargoritsu bat.

Bakarrik zaudete. Bere logelan.

Zu eta bera. Eta atomoen arteko hustasuna, amodioz bete; bizkotxo artean esne-gaina bezala (edo txokolatea).

Kortinak puzten eta despuzten diraute, mareen legez, baltsean, haizea ferekatuz.

Zutunik zaudete, isilik, geldirik. Elkarri begira geratu zarete: zutunik, isilik, geldirik. Luzaroan.

Eskua jaso du berak, eta zure ilean hondoratu, ilea orraztuz, laztanduz. Masailean pausatu dizu gero, eztizko zirri baten leuntasunaz.

Luzaz isilik egondako zure arnasa lotsatia piano bate-tik fuertissimo batera igaro da, in crescendo batean sakonduz joanik.

Geldi zaude zu, bare. Kieto. Zure barrenean olatuek gainez egiten dute. Mutu zaude. Hari begira.

Poliki gerturatu zaizu, airearen ezereza mila zatitan hausteko beldurrez edo.

Hatsak, itsasertzera doazen uhinak antzo, etorritz, joa-nez, marearekin akort, barrenduz joan dira.

Sudurrak ukitu egin dira instant batez, gura barik lege-z. Beste eskua ilean barneratu dizu, saman kili-kili finak eginez. Ezpainak, elkarrengandik gero eta gertua-go, hurbiltzen doaz, hurreratzen, emaro; noiz behinka alderatzen direlarik, atzera ere, gerturatze-ko. Bada, ezpainak, ia-ia elkar ukituz, ia-ia marruskatuz, elkar-tzen eta deselkartzen, arnasaren barnatasunean kulun-katuz doaz. Ezpainen jolasa, musuen zaldi-maldikoa.

Geroenean, bereak zureetan pausatu dituen arte (segundo batez soilik).

Begiak itxi dituzu. Maiteak bere ezpain hezeak zuree-tatik apartatu dituenen ere, zarratuta mantendu ditu-zu. Begiak irekitzean, zeure ezkutuko grin-en mende den ametsa ezerezarekin disolbatuko bailitzan.

Jarraian, musu eman dizu masailean. Eta ilea atze-rantz bota, zure lepo zuria biluzik utziz. Eta, bertan, leuntasun zurbilean, sama biluzian, ia-ia sentitu ez duzun musu ikusezin bat eman dizu, azala kilika fin batez bustiz.

Oraindik ere begiak hertsita dituzu; zirri oro eztituz, dastatuz.

Barneratuz.

Hatsen eta hasperenen olatuek inoiz baino erraiago, forma abstraktuak zizelkatzen diraute itsasertzean.

Bitartean, zure blusako botoiak askatzeari ekin dio, astiro. Alkandora erantzi dizu, bere besoen barnean hartzeke. Musuz estali dizkizu lehenik sama, eta gero, sorbaldak; bularretaraino helduz.

Soinekoa erantzi du berak, lurrera jausten utziz. Eta ohean etzan zarete, izaren ozeanoan itsasperatuz.

Gorputz biluziak bildu egin dira, kateatu. Ile gorriak beltzekin nahastu: beltzak gorriekin.

Zure zilborraren zirimolan urtzeraino musukatu dizu sabela, bere ezpainen epeltasuna mintzean barreiatuz. Hasperenez bete duzue logelako isilpea: zure barneko hutsala. Zeuen pentagrama propioa. Bularrak bularren kontrako igurzetan, sabelaldeak biltzerakoan, hankak korapilatzerakoan.

Tartean, haizeak kortinak dantzarazten darrai, olgetan, hauek uhinez puztuz, hustuz, puztuz, hustuz. Erlojuaren orratzek azelerazio zentripetuenaren menpe jarraitu dute, denboraren morroi.

Izaren amaigabetasun zurian izartu zara, ilunpean, bere alboan. Gainean.

Kortinak jada bare daude, kilkerren hotsen ahairpean, lotan.

Ilea ferekatu diozu, hatz batez "maite zaitut" idatzi bizkarrean. Zure malko baten ihesa bere lepoan behera labaindu da, irristatu: zure saminarekin ibaia sortuz. Eta, erreka ikusezin hura isuri den itsaso txikian, azalean, musu txiki bat eman diozu; bertan jarrai dezan, iraun. Denborarengandik, minarengandik salbu izan dadin. Musua.

Azkena.

Isilean jantzi zara. Ispilura so egin duzu, masailak lehortu.

Azken begiratua eskaini diozu gelatik irten eta zure egunerokotasun zapaltzailean sartu orduko, gogoan gorde dezazun.

Atea suabe-suabe zarratu duzu, bera iratzar ez dadin. Atarira irten zara, eta igogailuari erreparatu diozu. Barrura sartu gura izan duzu, zerbait egitearren, non-baitera joatearren. Apur bat gehiago galtzeko. Segundoek emandako urratsetan, denboran. Errealitatean.

Baina ateak itxita daude.

Etxean sartu zara. Gizona afariaren zain egon behar-ko da, bestela.

Zure barneko zirimola zoroa apur bat askatu nahian, kuadernoa eta boligrafoa (berdea) hartu eta idazten hasi zara. Hasierarik ez amairik bako gauzak, pentsamenduak, ideiak. Ametsak. Soilik hitzak. Zentzurik gabekoak.

Idatzi duzu nonbaiten, ez dakizu non, baina han dagoen emakume bati buruz. Idatzi duzu haren beldurraz, ziurtasun-gabeziak, tristuraz. Bere hutsalaz. Idatzi duzu hark igarotako gau bakartien iluntasunaz, isiltasunaz. Idatzi duzu galduta dabilela, Txainogorritxuren antzera, bidetik urrundu dela. Idatzi duzu, zeure burua baino hobeto ezagutuko bazenu legez, suz bustiriko olatua izan gura duela, indartsua eta asaldaria, irmoa, haitzen kontra estalka egiten duena, bizitasunean hiltzen; olatu hauskorra da alabaina, itsas-ertzera heldu eta desegiten dena, galtzen. Off-ean gatibatutako uhin itzalia.

Eta, konturatu ere egin gabe, labaindu zaizu boligrafoa eskuetatik ondorengoa idazteko:

Kalean barna zihoan Naia, lurrera begira. Baldosa zikin batetik bestera saltoka, haien arteko

mugalari diren marrak ukitu barik. Instant batez oreka galdu eta marra bat zapaldu zuen, deskuidotan. Oraindik ere oroitzen zen, umetan, baldosen marrak ez-zapaltzera olgutzen zirenean. Saltoka ematen zuten arrastia, kalean, harik eta amek aforia jateko deitzen zieten arte. Beste batzuetan, aldiz, luzaroan marrak ez-ukitzera jolasten egon ondoren, marrok haserretu egiten ziren umeekin eta euren zapatekin, ze deskuidoaren-deskuidoz norbaitek beti amaitzen zuen marraren bat-edo beste zapalduz. Arrazoi horregatik, edo bestela aspertzearen aspertzeaz, jokoz aldatzen zuten umeek sarritan, eta harrapaketan olgutzen ziren, edo bestela, azken erremediotzat, udaletxearen parean zegoen iturriraino lasterketak egiten zituzten, “Azkena putxi kakalarri!!!” oihu eginez. Eta, faktore ulertezin eta azalezin batzuk zirela medio, Naiak *Putxi-Kakalarri* izatea ezin ekidin zezakeen arren, gogoko zuen joko hartara jolastea. Eta beste ume guztiek *Putxi-kakalarri* eta hortik gorako beste ehun berba motzez batailatzen bazuten ere, arratsaldero-arratsaldero olgutzen zen Naia. Izan ere, berarekin batera, zango luzanga eta belarri handidun mutil hark ere parte hartzen zuen, okinaren semeak hain zuzen. Eta mutiko koxkor haren zangoen luzangatasuna edo belarrien handitasunaren erruz umeek Naiaz trufatzeko arrazoi bat zuten arren, bost axola zitzaion neskatoari beste ume mokoek berataz esango zutena. Ze, aitortu behar, Naiaren buruan kabitzen zen gauza bakarra mutiko hura zen. Bera eta beraren marrubiak. Astearte

goizetan, amamari merkatuko dendatxotik ostutzen zizkion marrubi gorri-gorriak, hosto berde eta handiak sonbrero zituztelarik. Horrela, bada, belarri xeledun lagunarekin marrubiak jaten zituen asteartero-asteartero, eta bederatzi urteko Naia hari irribarre batek ihes egiten zion, eta masailetakoko pekak alaitu, pozaren-pozez.

Oroitzapenek segundo urri batzuen bizialdia soilik okupatu zuten arren, nahikoa izan ziren Naiarentzat.

Bere bizitza amildegirantz zeramanaren kontzientziak lohitu zuen goitik eta behera. Egunerokotasunaren iraupenak itotzen zuenaz ohartu, ooren buruan.

Eta, derrepentean, gauaren iluntasuna zauritzen duen izar usoaren antzera, ihesaldiaren beharra sentitu zuen bere erraieran. Urteetan zapalduta egon den oihua altxatu, eta durunda egin zion bere barneko pareten kontra, alde egin nahian, askatasunean galbideratu guran. Ihes egin behar zuen. Bere buruaz beste egiten zuen monotonia-
ren inertiak irentsi zezan baino arinago. Alde egin behar zuen, une hartan, asagora.

Eta, ordulariaren orratzen zaldiko-maldikoan xahututako segundo bakoitzaren pisua lepoan zuela, bizialdi hari amaia ematea erabaki zuen. Aspaldi hautatutako bide hura atzean uzteko ordua zen, eta berea berreraikitzeke. Hasiera guztiak baitatoz amaiera baten ondoren.

Gaua iratzartzen hasi zen, eta euria hasi zuen. Zirimiria, iluntzetako lainoei zirriak egiten dizkie-

ten horietakoa. Kilikortasunaren leuntasunaz azala bustitzen dizun berbera. Bizitzaren esparruan iraultzaren usaia igarritakoa bakarrik agertzen den euri umela.

Bidean zihoan Naia, aurrerantz. Helmugarantz.

Eta, tupustean, bi emakumeren patuen xendak bidegurutze batetan elkartu ziren, gurutzatu. Elkartu.

Estropezu egin zuten Naiak eta emakume hark. Zoriaren nahigabetasunaren nahiaz. Zutundu bezain laster, Naiak eskua luzatu zion emakumeari, eta ondo ote zegoen galdetu. Emakumearen masailean gaindi malko batek irrist egin zuen, lotsatuta; euri-tanta batekin elkartuz, bien arteko erreakzioan urtuz.

Emakumeak Naiaren eskua oratu eta zutundu egin zen, bere begien parean kokatuz. Ez zion eskua soltatu alabaina, eta, segundo baten luzeraren hegiak lehertuaraziz, bi segundo, edo hiru, edo hiru eta erdiz gogor eutsi zion Naiaren eskuari, bere bizitzaren azken salbamenari tinko atxiki nahian. Bizirik jarraitzen zuela erakusten zion inar oro iraunarazi guran.

Ezezagunari eskua askatu diozu geroenean.

Ur-azaleraino igotzen lagundu dizun esku berbera; arnasa apenas har zenezakeen unean itoalditik askatu dizuna. Galernaren bihotzean eguzkiak dir-dir egitea erdietsi duen berbera. Patuarena.

Eta azken urteotan zeure barneko izkinatxoetan armiarmen- sareen alboan pilatzen joan den samin oro hasperen batez hautsi duzu. Loaldi luze baten kartzelatik

askatu bazina lez. Bizitzaren plazara lehenengo aldiz jalgiko bazina bezala.

Argiaren gardentasuna oparitu dizun emakumeari eskerrik asko esan eta abiatu egin zara, hatsarekin batera bizitza errekuperatuz, bihotza iratzartuz.

Etxera itzuli eta idazteari ekin diozu, bi bideri amaia eman guran. Bi agur idatzi dituzu. Lehenengoan, egunotan zure kuadernoan pasieran ibilitako emakume horren patua desbideratu duzu. Norbait horri buruz idatzi duzu, azkenekoz. Zeure bihotzaren taupaden azelerazioaren menpe, idatzi duzu norbait hori bidean aurrera doala, estropezu egiterakoan emakume baten bizitza salbatu berri duelakoari erreparatu ere egin barik. Zirrimarratu duzu aurrerantz doala, bere pausoen abiadura bihotzaren taupadenarekin batera bizkortzen dela. Eta zeure boligrafoaren pultsazioekin konforme jartzen:

Azkenean ailegatu zen. Bustita zegoen, hotzikarezez blai. Dardarazko atzamar bat luzatu zuen: tinbrea helmuga. Ibilbidea apenas hogeitazentimetrokoa bazen ere, asago zegoen txirrina, urrun. Zero, bat eta hirugarren zentimetroetatik urrunegi, matxinada txiki harentzat. Naiarentzat. Sei, zazpi eta zortzigarrenetatik ere urrunegi, azken orduan pilatutako indarrak mantendu eta ez kikiltzeko. Hamargarren zentimetrotik are urrunago, galernaren itsasaldian barneratuko den bapore txiker batentzat. Eta, etsipenaren zapore erakargarria ia-ia zentzuan, esperantza nonbaiten galdutako piano zahar baten notak legez joan zen ezereztatzen, koloregabetzen. Alabaina, patuaren txotxongilo zen heinean, txirrinarenganako hamairugarren zentimetroan dardaraka hasitako atzamarraren

gidari zen hari ikusezin batek tira egin zuen, hamalau, hamabost, hamasei eta hamazazpigarren zentimetroetan. Eta, indar ezezagun haren adoreaz kitzikatuta, aurrera egin zuen Naiaren atzamar erakusleak, txirrinera iristeko falta zitzaizkion azken hiru zentimetroetan; hemezortzi, hemeretzi... hogei. Tri- tri- triiiii!!!

Eternitatean mugatutako segundoak inoiz pairatu gabeko abiaduran igaro ziren, erlojuaren orratzak beren arima arrastaka eroango balute legez. Azkenean, zenbait eternitateren buruan, etxean ez zegoela—eta atzera egin zuen Naiak, bidean erositako marrubien kaxa atarian utzi ostean. Derrepentean atea ireki zen, eta burua biratzeko denborarik ere eman gabe, eskutik oratu zion Josebak. Tiraka, berarengana eroan zuen. Ile bustia aurpegitik apartatu eta neskaren aurpegiko milimetro oro arakatu zuen begiradaren fereka batez, makillajerik bako begi garbietan pausatuz, masail umiletan, ezpain biluzietan. Eta, supituki, nahigabe, patuaren azpijokoren bat zela medio, naturaren arauak apurtuz, denboraren xixkalari bihurtuz, Naiaren ezpainak okinaren semearenetarraino egin zuten irrist, marrubien bilaketan.

Gau hartan bertan, bereak ez ziren beste izara batzuen esklabu zelarik, klinex bat eskuratu zuen Naiak, eta ilargiaren irria lekuko zela, zapalkuntza hari amaiera eman zion. Hegoak, libre izan nahi zuen askatasunari. Betiko:

Bigarren agurra senararentzat izan da. Ohar soil bat, frigorifikoa itsatsita: “Heriotzak banan gintzan arte elkartu gintuen aita Jonek. Bada, herioa da hau. Atzoko egunaren iluntzea; biharkoaren goizaldea. Amaiera guztien ostean baitatoz hasierak.”

*Aspaldiko hautsaz eta sitsaz bustitako bakero zahar-
rrak eskuratu armairutik, eta ilea txukundu gabe, oin-
tsik atera zara etxetik, poltsikoan daramazun ondasun
bakarra bizitzeko grina delarik. Atea itxi eta giltzak jaur-
ti dituzu, bentanatik at, amaiera batez bestalderaino.
The end.*

*Bide berri honen estreinako pausoari irriz, txirrina jo
duzu 8-Ban, zeure biziaren sugar sutsuari irribarrez.
Eta, danborren hots zalapartatuen deiari jarraika, zeure
biziaren antzetzokiko tertziopelodun oihal granateak ireki
egin dira. The beginning.*